

BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN GIZARTE EKINTZA SAILAREN ETA EUSKADIKO UDALEN ELKARTEAREN (EUDEL) ARTEKO LANKIDETZARAKO ESPARRU-AKORDIOA, UDAL-TITULARTASUNEN EGOITZA-ZENTROEI BURUZKOA.

ACUERDO - MARCO PARA LA COLABORACION ENTRE EL DEPARTAMENTO DE ACCIÓN SOCIAL DE LA DIPUTACION FORAL DE BIZKAIA Y LA ASOCIACION DE MUNICIPIOS VASCOS (EUDEL), EN RELACION A LOS CENTROS RESIDENCIALES DE TITULARIDAD MUNICIPAL.

Bilbon, 2017ko apirilaren batean.

En Bilbao, a uno de abril de 2017.

### BILDU DIRENAK

Alde batetik, Isabel Sánchez Robles andrea, Gizarte Ekintza Saileko foru-diputatu, Bizkaiko Foru Aldundiaren ordezkari.

Beste alde batetik, Imanol Landa Jauregi, Euskadiko Udalen Elkarteko (EUDEL) elkarteburua.

### SE REÚNEN

De una parte Dña. Isabel Sánchez Robles, Diputada Foral del Departamento de Acción Social, en representación de la Excm. Diputación Foral de Bizkaia.

Y de otra, D. Imanol Landa Jauregi, Presidente de la Asociación de Municipios Vascos (EUDEL)

### AZALDU DUTE


Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legeak egitaratu zuen erantzukizun publikoko gizarte-zerbitzuen sistemaren antolaketa; hain zuzen, oinarriko gizarte-zerbitzuak eta gizarte-zerbitzu espezializatuak bereizi zituen, eta batzuen eta besteen eskumena esleitu zien udalei eta lurralde historikoetako foru-erakundeei, hurrenez hurren.

Lege horren arauzko garapena eman zuen urriaren 6ko 185/2015 Dekretuak, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzkoak. Izan ere, horren bidez garatu zen Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen katalogoa, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 22. artikulua araututakoa, 23. artikulua eta lehenengo xedapen gehigarriaren manuak betez.

### MANIFIESTAN

La Ley 12/2008, de 5 de diciembre, de servicios sociales estructura la organización del sistema de Servicios Sociales de responsabilidad pública distinguiendo entre servicios sociales de base y especializados, y atribuyendo la competencia de unos y otros a Ayuntamientos y a los órganos forales de los Territorios Históricos respectivamente.


La citada Ley ha tenido su desarrollo reglamentario a través del Decreto 185/2015, de 6 de octubre, de cartera de prestaciones y servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales, que desarrolla el Catálogo de Prestaciones y Servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales regulado en el artículo 22 de la Ley 12/2008, de 5 de diciembre, de Servicios Sociales, cumpliendo el mandato contenido en su artículo 23 y en su disposición adicional primera.



Prestazio eta gizarte-zerbitzuen zorroak, 185/2015 Dekretuak araututakoak, mugatu zuen euskal administrazio publikoen maila bakoitzari dagokion betebeharra zerbitzu eta prestazio ekonomikoen ildotik. Horiek derrigorrez eman behar dira, eta haien eskumenekoak dira Gizarte Zerbitzuei buruzko Legearen 40.3., 41.3. eta 42.4. artikuluek aurreikusitako eskumen-banaketari jarraikiz.

Zehazki, bigarren mailako arretako eta, beraz, Foru Aldundiek hornitu beharreko gizarte-zerbitzu gisa ezarri ziren honako hauek: II. eta III. mailako mendekotasuna duten adinekoei eta, salbuespen gisa, I. mailakoa dutenei, ohiko etxebizitza edo etxebizitza iraunkorra moduan, edo kasua balitz, aldi baterako, balio zaizkien zentroak; hau da, adinekoen egoitza-zentroak deritzenak (2.4.1.).

Bestalde, lehen mailako arretako eta, beraz, udalek hornitu beharreko gizarte-zerbitzu gisa ezarri ziren mendekotasuna duten (I. maila) adinekoentzako intentsitate txikiko ostatu-zerbitzuak; hau da, adinekoen ostatu-zerbitzuak deritzenak (1.9.3. eta 1.9.4.).



Praktikan, Bizkaiko Foru Aldundiaren Gizarte Ekintza Sailak lankidetzaz hitzarmenak izenpetu ditu udal-titulartasuneko 14 egoitzarekin I. eranskinean zehaztu dira, mendekotasuna duten adinekoentzako egoitza foru-zerbitzu publikoa emateko. Aurrekoa gorabehera, udal-titulartasuneko egoitzak, hainbat arrazoi direla-eta, III. eta II. mailako mendekotasuna duten pertsonak hartzen ari dira foru-plaza publikoa esleitua izan bari.

La Cartera de Prestaciones y Servicios Sociales, regulada en el Decreto 185/2015, delimita la obligación de cada nivel de las administraciones públicas vascas respecto a los servicios y prestaciones económicas, de obligada provisión, que recaen en su competencia, de conformidad con la distribución competencial prevista en los artículos 40.3, 41.3 y 42.4 de la Ley de Servicios Sociales.

Así en concreto, se fijan como servicios sociales de atención secundaria, y por tanto de provisión por las Diputaciones Forales, los centros para servir de vivienda habitual o permanente y, en su caso temporal, a personas mayores en situación de dependencia en Grados II y III y excepcionalmente con Grado I, que denomina Centros Residenciales para personas mayores (2.4.1.).

Por su parte se fijan como servicios sociales de atención primaria, y por tanto de provisión por los Ayuntamientos, los recursos de alojamiento de baja intensidad destinados a personas mayores en situación de dependencia (Grado I), que denomina Servicios de alojamiento para personas mayores (1.9.3. y 1.9.4.).


En la práctica el Departamento de Acción Social de la Diputación Foral de Bizkaia, viene teniendo suscritos Convenios de Colaboración, con 14 residencias de titularidad municipal, los indicados en el Anexo I, para la prestación del servicio público foral de residencia a personas mayores en situación de dependencia. A pesar de esto en las residencias de titularidad municipal, por diversas circunstancias, vienen siendo atendidas personas en situación de dependencia con Grado III y II, sin que tuviesen asignada plaza pública foral.

Horrenbestez, Gizarte Ekintza Sailak, EUDEL eta udal edo toki-erakunde egokiekin batera, ezohiko prozedura egin du, 2016ko abenduaren 26an Bizkaiko Lurralde Historikoko udal-titulartasuneko egoitzetan zeuden eta II. edo III. mailako mendekotasuna zuten pertsona guztiak erregulatzeko.

Foru-plaza publikoaren onuraduneko egoera aitortu zaie pertsona horiei, Gizarte Ekintza Sailaren foru-aginduaren eta ezohiko prozedura horren bidez. Egoera hori bermatzeko, beharrezkoa da udal-titulartasuneko egoitzekin hitzartutako plaza-kopurua aldatu eta aipatutako pertsonen hartzten dituzten plazak gehitzea.

Horregatik guztiagatik,

#### ERABAKI DA



I.- Bizkaiko Foru Aldundiaren Gizarte Ekintza Sailak eta Bizkaiko Lurralde Historikoko egoitzen udal eta mankomunitate titularrek banakako lankidetzeta-hitzarmenak izenpetuko dituzte, II. eranskinean ezarritako baldintzekin bat. Hitzartutako plazak areagotuko dira, II. eta III. mendekotasun-maila baloratu zaien pertsona-kopuruaren arabera, foru-agindu baten bidez onuraduneko egoera onartu bazaie eta I. eranskineko zentroetan bazeuden 2016ko abenduaren 26an. Ezohiko erregulazioak ondorioak izango ditu 2017ko apirilaren 1etik aurrera.

Por tal motivo, el Departamento de Acción Social en coordinación con EUDEL y los correspondientes Ayuntamientos o entes locales, han llevado a cabo un proceso de regularización extraordinario de todas las personas que a 26 de diciembre de 2016 estuviesen ingresadas en residencias de titularidad municipal del Territorio Histórico de Bizkaia, y estuvieran valoradas con niveles de dependencia de Grado II y III.

A estas personas les ha sido reconocida la condición de persona beneficiaria de plaza pública foral, por Orden Foral del Departamento de Acción Social, mediante este proceso de carácter extraordinario. Para dar cobertura a dicha situación, resulta necesario modificar el número de plazas convenidas con las residencias de titularidad municipal, incorporando las plazas ocupadas por estas personas.

Por todo ello se :

#### ACUERDA

I.- Que el Departamento de Acción Social de la Diputación Foral de Bizkaia y los Ayuntamientos y Mancomunidades titulares de residencias del Territorio Histórico de Bizkaia, suscribirán Convenios de Colaboración individualizados, en los términos y condiciones del Anexo II. Se incrementan las plazas convenidas, tanto como resulten personas valoradas con Grado II y III, que obtengan la condición de persona beneficiaria mediante Orden Foral y estuviesen ingresadas en los centros del Anexo I a 26 de diciembre de 2016. Dicha regularización extraordinaria se realizará con fecha de efectos de 1 de abril de 2017.



II.- Etorkizunean, Bizkaiko Foru Aldundiaren Gizarte Ekintza Sailak lehenetsiko du plaza publikoak esleitzea mendekotasuna duten eta foru-agindu baten bidez onuraduneko aitortpena ematen zaien pertsoneri, eta erabiltzaileen aukera gailenduko da.

III.- 2017ko apirilaren 1etik aurrera, I. mailako mendekotasuna duten pertsonen zentroan jarraitu ahalko dute urtebete baino gehiago badaramate bertan, II. edo III. mailako mendekotasuna aitortu bazaie geroago eta foru-plazaren onuraduneko egoera eskuratu badute. Horrela, gogoz kontrako lekualdaketak ekidingo dira eta haiei arreta egiten jarraitzen dela ziurtatuko da.

IV.- Gizarte Ekintza Sailak dagokion konpentsazio ekonomikoa emango die udal-egoitzei, akordio hau 2016ko abenduaren 26an izenpetu izango balitz bezala, data horietan sinatutako hitzarmenetan erreferentzia moduan ageri den plaza bakoitzeko prezioetik abiatuta.

V.- Kontrakoa itudun ezean, lankidetzahitzarmenak esparru-akordio honetan ezarritako baldintzekin bat egingo dira urtebeteko aldietarako, lehenengo urtean izan ezik, zeina 2017ko abenduaren 31ra arte iraungo duen. Etorkizuneko ekitaldietan, hitzartutako plaza-kopurua eskaera errearen arabera -II. edo III. mailako mendekotasuna duten adinekoena- ezarriko da, betiere, zentroaren edukiera kontuan izanik.

VI.- Esparru-akordio hau indarrean izango da 2020ko ekitaldira arte, eta arautuko du udal- edo mankomunitate-titulartasuneko egoitzazentro guztien eta Bizkaiko Foru Aldundiaren arteko harremana. Isilbidez, urtebeteko aldietan luzatuko da, salbu eta berazkentzeko jakinarazpen bat berariaz aurkezten bada, aldi bakoitza amaitu baino hiru hilabete lehenago, edo akordioa ordeztzen duen beste bat egiten bada.

II.- A futuro, el Departamento de Acción Social de la Diputación Foral de Bizkaia priorizará, la utilización de plazas públicas en la asignación de plazas a personas en situación de dependencia con Orden Foral de reconocimiento de persona beneficiaria, prevaleciendo la elección de las personas usuarias.

III.- Que a partir del 1 de abril de 2017, las personas que lleven ingresadas en las residencias municipales con Grado I, más de un (1) año, pasaran a estar reconocidas con un grado de dependencia II o III y obtuvieran la condición de persona beneficiaria de plaza foral, podrán permanecer en el centro, si lo desean, para evitar traslados indeseados y procurar una continuidad en la atención.

IV.- El Departamento de Acción Social realizará la compensación económica que hubiera correspondido a las residencias municipales si el presente Convenio se hubiese suscrito a fecha 26 de diciembre de 2016, partiendo del precio plaza de referencia en los convenios suscritos en dichas fechas.

V.- Los Convenios de Colaboración, salvo pacto en contrario, se suscribirán en los términos de este acuerdo marco con una periodicidad anual, salvo el primer año que será hasta el 31 de diciembre de 2017. El número de plazas convenidas en ejercicios futuros se determinará en función de la demanda real de plazas para personas mayores en situación de dependencia grado II y III que tengan los centros residenciales y siempre con el límite de la capacidad del centro.

VI.- La vigencia del presente acuerdo marco se extiende hasta el ejercicio 2020, regulando las relaciones entre todos los centros residenciales de titularidad municipal o de una Mancomunidad y la Diputación Foral de Bizkaia, dándose por tácitamente prorrogado por periodos anuales, salvo denuncia expresa con tres meses de antelación a la finalización de cada periodo de vigencia o que se alcance un nuevo acuerdo que lo sustituya.

VII.- Jarraipen Batzordea ezarriko da, erakundeen arteko lankidetzarako aldean nahia gauzatzeko tresna gisa. Haren eginkizun nagusia akordio honetan hitzartutakoaren jarraipena egitea izango da, baita emandako zerbitzuaren, haren kostu eta kudeaketaren balorazioa egitea ere. Honako hauek osatuko dute batzordea: Bizkaiko Gizarte Zerbitzuen Erakunde arteko Mahaian dauden EUDELeko eta Bizkaiko Foru Aldundiaren Gizarte Ekintza Saileko ordezkariak. Gutxienez, urtean behin egingo dute bilera.

VII.- Como instrumento de la voluntad de colaboración interinstitucional de las partes, se establece una Comisión de Seguimiento que tendrá como tarea básica el seguimiento de lo pactado en el presente acuerdo y la valoración del servicio prestado, su coste y su gestión. Dicha Comisión se compondrá por las personas representantes de EUDEL en la Mesa Interinstitucional de Servicios Sociales de Bizkaia y por las personas representantes del Departamento de Acción Social de la Diputación Foral de Bizkaia en dicha mesa. Se reunirá al menos de manera anual.

EUSKADIKO UDALEN ELKARTEKO ELKARTEBURUA  
PRESIDENTE DE LA ASOCIACION DE  
MUNICIPIOS VASCOS

IMANOL LANDA JAUREGI



GIZARTE EKINTZAKO FORU DIPUTATUA  
DIPUTADA FORAL DE ACCION SOCIAL

ISABEL SANCHEZ ROBLES





I. ERANSKINA - 2016/12/31N FORU-FINANZATZIOA JASOTZEN ZUTEN UDAL-EGOITZETAKO PLAZAK  
ANEXO 1 - PLAZAS CON FINANCIACIÓN FORAL EN RESIDENCIAS MUNICIPALES A 31/12/2016

ZENTRO ZENB. CONT. CENTROS	ERAKUNDEA ENTIDAD	ZENTROA CENTRO	PLAZA BAKOITZEKO PREZIOA (BEZ-A KANPO) PRECIO PLAZA (SIN IVA)	FORU-PLAZA PUBLIKO KOP. N° PLAZAS PÚBLICAS FORALES
1	BASAURIKO ADINEKOEN EGOITZA/RESIDENCIA DE ANCIANOS DE BASAURI	BASAURIKO ETXE MAITIA UDAL-EGOITZA/R. MUNICIPAL ETXE MAITIA DE BASAURI	77.88 €	14
2	BERMEOKO GIZARTE ONGIZATERAKO UDAL PATRONATUA	"SANCTI SPIRITUS" ZAHARREN EGOITZA	77.88 €	41
3	DIMAKO UDALA/AYUNTAMIENTO DE DIMA	PIEDADEONDO EGOITZA/RESIDENCIA PIEDADEONDO	77.88 €	14
4	ARRATIAKO EGOITZA HERRI ERAKUNDE AUTONOMOA	ARRATIAKO EGOITZA	77.88 €	43
5	ERANDIOKO UDALA/AYUNTAMIENTO DE ERANDIO	ERANDIOKO SAN JOSE EGOITZA/HOGAR RESI DE SAN JOSE DE ERANDIO	77.88 €	19
6	FORUKO UDALA/AYUNTAMIENTO DE FORUA	CALABRIA EGOITZA/RESIDENCIA CALABRIA	77.88 €	30
7	GETXOKO JESUSEN BIHOTZAREN EGOITZA/ERAKUNDE AUTONOMOA/ORGANISMO AUTONOMO RESIDENCIA MUNICIPAL DEL SAGRADO CORAZON DE JESUS DE GETXO	GETXOKO JESUSEN BIHOTZAREN UDAL-EGOITZA/RESI MUNICIPAL SAGRADO CORAZON DE JESUS DE GETXO	77.88 €	91
8	ONDARROAKO UDALA/AYUNTAMIENTO DE ONDARROA	ARTIBAI EGOITZA	77.88 €	23
9	OROZKOKO UDALA/AYUNTAMIENTO DE OROZKO	ANDRA MARI-SANTO HOSPITAL DE OROZKO EGOITZA/RESIDENCIA ANDRA MARI. SANTO HOSPITAL DE OROZKO	77.88 €	28
10	OTXANDIOKO ADINEKOEN EGOITZA/RESIDENCIA DE ANCIANOS DE OTXANDIO	OTXANDIOKO EGOITZA/RESIDENCIA DE ANCIANOS DE OTXANDIO	77.88 €	14
11	BEGOÑAKO AMA EGOITZA TOKI ERAKUNDE AUTONOMOA/ORGANISMO AUTONOMO LOCAL RESIDENCIA NUESTRA SEÑORA DE BEGOÑA DE SANTURTZI	NUUESTRA SEÑORA DE BEGOÑA EGOITZA/RESIDENCIA NUESTRA SEÑORA DE BEGOÑA	77.88 €	70
12	URDUNAKO ARKUPEA SOZTETATE PUBLIKOAV/URDUNAKO ARKUPEA SOCIEDAD PUBLICA	URDUNAKO ADINEKOEN UDAL-EGOITZA/RESIDENCIA MUNICIPAL DE ANCIANOS DE LA CIUDAD DE ORDUNA	77.88 €	40
13	ZALLAKO EGUZKI EGOITZA. ZAHARREN ARRETA-ZERBITZUAREN TOKI-ERAKUNDE AUTONOMOA/ORGANISMO AUTONOMO LOCAL DEL SERVICIO DE ATENCIÓN A LA TERCERA EDAD RESIDENCIA ZALLAKO EGUZKI	ZALLAKO EGUZKI EGOITZA/ZALLAKO EGUZKI RESIDENCIA	77.88 €	30
14	ZEBERIOKO EUSEBIO ALDEKOA EGOITZA FUNDATZIOA/FUNDACION RESIDENCIA EUSEBIO ALDECOA DE ZEBERIO	EUSEBIO ALDEKOA EGOITZA / EUSEBIO ALDEKOA RESIDENCIA	77.88 €	17
15	SESTAOKO UDALA/ AYUNTAMIENTO DE SESTAO	JUAN ELLACURÍA LARRAURI EGOITZA/RESIDENCIA JUAN ELLACURÍA LARRAURI	77.88 €	0
				474

Oharra: Sestaoko Juan Ellacuría Larrauri egoitza inbentario gisa agertzen da Ieranskinean  
Nota: se incluye en el anexo 1 a la residencia Juan Ellacuría Larrauri de Sestao a modo de inventario.



II. ERANSKINA - 2017/04/1EAN FORU-FINANITZAZIOA JASOTZEN DUTEN UDAL-EGOITZETAKO PLAZAK  
ANEXO 2 - PLAZAS CON FINANCIACIÓN FORAL EN RESIDENCIAS MUNICIPALES A 1/04/2017

ZENTRO ZENB. CONT. CENTROS	ERAKUNDE ENTIDAD	ZENTROA CENTRO	PLAZA BAKOITZEKO PREZIOA (BEZ-A KANPO) PRECIO PLAZA (SIN IVA)	FORU-PLAZA PUBLIKO KOP. Nº PLAZAS PÚBLICAS FORALES
1	BASAURIKO ADINEKOEN EGOITZA/RESIDENCIA DE ANCIANOS DE BASAURI	BASAURIKO ETXE MAITIA UDAL-EGOITZA/R. MUNICIPAL ETXE MAITIA DE BASAURI	81.00 €	34 (1)
2	BERMEOKO GIZARTE ONGIZATERAKO UDAL PATRONATUA	"SANCTI SPIRITUS" ZAHARREN EGOITZA	81.00 €	58 (6)
3	DIMAKO UDALA/AYUNTAMIENTO DE DIMA	PIEDADEONDO EGOITZA/RESIDENCIA PIEDADEONDO	81.00 €	19 (2)
4	ARRATIAKO EGOITZA HERRI ERAKUNDE AUTONOMOA	ARRATIAKO EGOITZA	81.00 €	47 (1)
5	ERANDIOKO UDALA/AYUNTAMIENTO DE ERANDIO	ERANDIOKO SAN JOSE EGOITZA/HOGAR RESI DE SAN JOSE DE ERANDIO	81.00 €	38 (5)
6	FORUKO UDALA/AYUNTAMIENTO DE FORUA	CALABRIA EGOITZA/RESIDENCIA CALABRIA	81.00 €	34 (2)
7	GETXOKO JESUSEN BIHOTZAREN EGOITZA ERAKUNDE AUTONOMOA/ORGANISMO AUTONOMO RESIDENCIA MUNICIPAL DEL SAGRADO CORAZON DE JESUS DE GETXO	GETXOKO JESUSEN BIHOTZAREN UDAL-EGOITZA/RESI MUNICIPAL SAGRADO CORAZON DE JESUS DE GETXO	81.00 €	105 (3)
8	ONDARROAKO UDALA/AYUNTAMIENTO DE ONDARROA	ARTIBAI EGOITZA	81.00 €	34 (2)
9	OROZKOKO UDALA/AYUNTAMIENTO DE OROZKO	ANDRA MARI-SANTO HOSPITAL DE OROZKO EGOITZA/RESIDENCIA ANDRA MARI, SANTO HOSPITAL DE OROZKO	81.00 €	36 (1)
10	OTXANDIOKO ADINEKOEN EGOITZA/RESIDENCIA DE ANCIANOS DE OTXANDIO	OTXANDIOKO EGOITZA/RESIDENCIA DE ANCIANOS DE OTXANDIO	81.00 €	16 (0)
11	BEGOÑAKO AMA EGOITZA TOKI ERAKUNDE AUTONOMOA/ORGANISMO AUTONOMO LOCAL RESIDENCIA NUESTRA SEÑORA DE BEGOÑA DE SANTURTZI	NUESTRA SEÑORA DE BEGOÑA EGOITZA/RESIDENCIA NUESTRA SEÑORA DE BEGOÑA	81.00 €	88 (6)
12	URDUNAKO ARKUPEA SOZIJETATE PUBLIKO/URDUNAKO ARKUPEA SOCIEDAD PUBLICA	URDUNAKO ADINEKOEN UDAL-EGOITZA/RESIDENCIA MUNICIPAL DE ANCIANOS DE LA CIUDAD DE ORDUNA	81.00 €	44 (3)
13	ZALLAKO EGUZKI EGOITZA, ZAHARREN ARRETA-ZERBITZUAREN TOKI-ERAKUNDE AUTONOMOA/ORGANISMO AUTONOMO LOCAL DEL SERVICIO DE ATENCIÓN A LA TERCERA EDAD RESIDENCIA ZALLAKO EGUZKI	ZALLAKO EGUZKI EGOITZA/ZALLAKO EGUZKI RESIDENCIA	81.00 €	36 (4)
14	ZEBERIOKO EUSEBIO ALDEKO A EGOITZA FUNDAZIOA/FUNDACION RESIDENCIA EUSEBIO ALDECOA DE ZEBERIO	EUSEBIO ALDEKO A EGOITZA / EUSEBIO ALDEKO A RESIDENCIA	81.00 €	21 (0)
15	SESTAOKO UDALA/ AYUNTAMIENTO DE SESTAO	JUAN ELLACURIA LARRAURI EGOITZA/RESIDENCIA JUAN ELLACURIA LARRAURI	81.00 €	23 (8)

(\*) Parentesi artean ageri diren zenbakiek adierazten dute 2017/04/06an zenbat espediente dauden izapide-bidean. Prozesu hori amaitu arte, ezin da batezatu erregularizazioan gehituko diren, eta horren arabera hitzartuko da gehieneko plaza-kopurua (ezkerreko zutabea)

(\*) El número entre parentesis indica los expedientes que se encuentran en tramitación a 6/04/2017. Hasta finalizar el proceso no se puede confirmar su inclusión en la regularización y de ello dependerá el número máximo de plazas a convenir (columna de la izquierda)